AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

6173

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 23koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2008ko enplegu publikorako eskaintzako administrari laguntzaileen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuko hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen bigarren zerrenda osagarriak, behin-behineko moduan, aditzera ematen dituena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak 2010eko apirilaren 16an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren, 2008. urteko lan-eskaintza publikoaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario izateko deitutako hautaketa-prozesuetarako.

Administrari laguntzaileen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan, hautaketa-prozesu horretako bigarren itzulian behin betiko hautatu ziren eta eskatutako agiriak horretarako emandako epean aurkeztu zituzten langileak karrerako funtzionario izendatzeko agindua argitaratu zen 2011ko azaroaren 30ean.

Karrerako funtzionario izendatutako izangaiei esleitutako lanpostuak jabetzan hartzeko eman zitzaien epea iraganda, ikusi da izangaietako batzuek eszedentzia-egoeran egotea eskatu dutela, baina esleitutako lanpostua gordetzeko aukerarik ematen ez duten modalitateren batean.

Hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrek 2.2.b) atalean xedatzen dutenez, kasu horietan, plaza gordetzeko aukerarik gabe eszedentzian dauden pertsonek hutsik utzi dituzten plazak esleitu behar dira.

Hori dela-eta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak bigarren idazki bat igorri dio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari, zehaztuz zein diren 2008ko enplegu publikorako eskaintzaren hautaketa-prozesuan administrari laguntzaileen kidegoan karrerako funtzionario izendatu ziren baina esleitu zitzaien lanpostua gordetzeko aukerarik ematen ez duen eszedentzian deklaratu diren pertsonak.

Halaber, administrari laguntzaileen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak hutsik dauden plazak esleitu dizkie dagokien izangaiei, betiere hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta 8.10 oinarriak ezarritako irizpideetan agintzen den bezala. Beraz, bete gabe geratu diren plaza adina izangai hautatu ditu epaimahaiak.

Behin hori eginda, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak agindua eman behar du hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen behin-behineko bigarren zerrenda osagarria argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea egongo da zerrenda horren aurka erreklamazioak aurkezteko.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– 2008ko enplegu publikorako eskaintzaren hautaketa-prozesuan administrari laguntzaileen kidegoan karrerako funtzionario izendatu ziren baina esleitu zitzaien lanpostua gordetzeko aukerarik ematen ez duen eszedentzian deklaratu diren pertsonen bigarren zerrenda argitaratzeko agintzea. Izangaien zerrenda hori Ebazpen honen I. eranskinean jasota dago.

Bigarren artikulua.– Administrari laguntzaileen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuari dagozkion hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen bigarren zerrenda osagarria, behin-behineko moduan, adiera ematea. Zerrenda hori Ebazpen honen II. eranskinean azaltzen da.

Hirugarren artikulua.– Aurreko artikuluan aipatzen den zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko, hamar egun balioduneko epea ezartzea. Epe hori, ebazpen hau argitaratzen den hurrengo egunean hasiko da.

Laugarren artikulua.– Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpen honen beste atalen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hala ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondokoetan. Errekurtsoari ez bazaio ebazpen adierazirik ematen, errekurtsoa ezetsitzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 23a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

I. ERANSKINA

2008KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZARI LOTUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAREN ONDORIOZ ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOAN KARREKAKO FUNTZIONARIO IZENDATUTAKOAK IZANDA ERE, DEKLARATU DA PERTSONA BATZUK ESZEDENTZIA-EGOERAN DAUDELA, BAINA EZ DAGOKIELA ESLEITUTAKO POSTUAREN ERRESERBARIK; HONA HEMEN PERTSONA HORIEN BIGARREN ZERRENDA:

Izangaia				Atxikituta izan zitzaien lanpostua			
NAN	Izen abizenak			Txanda	Lanpostua	Dotazioa	Hizkuntza eskakizuna
72719226	Abecia	Diez	Sonia	L	520020	158	PL2
72431850	Albitos	Virtus	M.ª Eva	L	520020	87	PL0
44132015	Bengoechea	Viloria	Natalia	L	520020	676	PL2
20182647	Bilbao	Garay	Iratxe	L	520020	592	PL2
22739847	Castaños	Liceaga	Garbiñe	L	520020	238	PL2
16302184	Gil	Vegas	Jaione	L	520020	175	PL0
30628502	Gutierrez	Fernandez	Luisa	L	520020	756	PL0
15994377	Irastorza	Mondragón	Ana Victoria	L	520020	75	PL0
35768475	Iriondo	Lasa	Arantxa	L	520020	983	PL2
30615531	Pérez	Andrés	Rosa	L	520020	144	PL0
44673084	Sanchez	Briones	Jorge	L	520020	177	PL2
15377477	Sololuze	Arrieta	Maria Teresa	L	520020	141	PL2
20174057	Torre	De Celis	Mónica	L	520020	76	PL0
18593500	Villapun	Arbaizar	Miren Gotzone	L	520020	686	PL0

II. ERANSKINA

2008KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESUKO HAUTATUTAKOEN ETA ESLEITUTAKO LANPOSTUEN BEHIN-BEHINEKO BIGARREN ZERRENDA OSAGARRIA

NAN	Izen abizenak			Lanpostua	Dotazioa	Hizkuntza eskakizuna
14942566	Alonso	Arana	Fco Javier	520020	175	PL0
16255364	Ballesteros	Izquierdo	Teresa	520020	158	PL2
30634555	Beascoa	Rodriguez	Francisco Javier	520020	592	PL2
72699191	Echeverria	Gueracenea	Oihana	520020	776	PL0
14599062	Galletebeitia	Goitiandia	Itziar	520020	385	PL2
16268932	Garcia	Aberásturi	Maria Olga	520020	76	PL0
22739971	Landazuri	Aguiar	M.ª Cristina	520020	16	PL2
16271343	Martin	Ruiz de Eguilaz	M.ª Amaya	520020	87	PL0
18598500	Patiño	Balbín	M.ª Fe	520020	75	PL0
16267096	Perez	Sáenz	Jose Felix	520020	370	PL2
16282357	Perez de Arenaza	Garcia	Maria Isabel	520020	686	PL0
14590826	Ponce de León	Errasti	M.ª Jesus	520020	144	PL0
72716929	Salazar	Perea	Fernando	520020	108	PL2
35766960	Santamaria	Irizar	Francisco Nicolás	520020	983	PL2